

ORDENANTZA, PP1 ZENBAKIA

**ORDENANTZA HONEK PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITU, HAIN ZUZEN, ZERBITZUAK
ESKAINTEAGATIK EDO UDAL JARDUERAK EGITEAGATIK**

1. Artikulua.- Udal honek, 9/2005 Foru Arauaren arabera, horrek arautzen baititu Lurralde Historikoko Toki Ogasunak, Eranskinetako tarifetan zehaztutako eta Ordenantza honetan ezarrita dauden arauak jarraiki, bestalde tarifa haiek ordenantza zati dira, zerbitzuak eskaini edo jarduerak egitearen gaineko prezio publikoak ezarri eta horien ordainketa exijitzen du.

2. Artikulua.- Ordenantza, udal barruti osoan, aplikatuko da.

3. Artikulua.- Ordenantza honetan araututako prezio publikoak, aipatu zerbitzu edo jardueraz gozatzen dutenek ordainduko dituzte.

4. Artikulua.- Ordenantza honetan erregulatutako prezio publikoen tarifak, Eranskin honetan agertzen direnak dira.

5. Artikulua.- Eskatu edo egindako zerbitzu edo jarduerak bakoitzeko exijituko diren kopuruak ordaindu beharko dira, eta dagokion epigrafean adierazitako kopuruak ezingo dira txikiagotu.

6. Artikulua.- Ordenantza honetan aipatzen diren udal zerbitzuak eskaini edo udal jarduerak egin ahal izateko, aurretik Udal Administrazioari eskatu egin beharko zaio horien eskaintza edo egitea. Aipatu zerbitzuak edo jarduerak baimenduak izan direla ulertuko da, edozein kasutan ere, Ordenantza honetan erregulatutako prezio publikoak ordaindutakoan eta horien luzapenak ordaindutakoan, hala ere prezio publikoa ez balitz ordainduko, horrek automatikoki ekarriko duen ondorioa, zerbitzua ez eskaintzea edo jarduerak ez egitea izango da.

7. Artikulua.- Udalak zerga hau eskatzekoan auto-likidazio erara eskatzeko aukera izango du.

8. Artikulua.- Ordenantza honetan erregulatutako prezio publikoak ordaindu beharra, zerbitzuaren eskaintza edo jardueraren egitea hasten den unean sortzen da, nahiz eta, Udalak horren zenbateko oso edo partzialaren gordailatzea egin dezala eska diezaiokeen.

Hala eta guztiz, jadanik onartu eta luzatutako zerbitzuen eskaintza edo jardueren burutzea denean, ordaintzeko obligazioa, horietako bakoitzaren tarifa adierazitako epe natural bakoitzeko lehenengo egunean sortzen da.

9. Artikulua.-

1.- Eskatzailearen errenta mailaren arabera hobera ezarri da, hurrengo laukiaren arabera:

| ERRENTA MAILAREN ARABERAKO HOBARIA | | | | | | | |
|--|-----------------------|---------------------------|---------------------------|---------------------------|---------------------------|----------------------------|--------------------------------|
| Hileko soldataren maila, lanbide arteko gutxieneko soldatarekin konparatua | | | | | | | |
| FAMILIA A UNITATEKO KIDEEN KOP. | LGS-TIK BEHERAKOAK | LGS-KO % 130ERAINOKOAK | LGS-KO % 150ERAINOKOAK | LGS-KO % 170ERAINOKOAK | LGS-KO % 190ERAINOKOAK | LGS-KO % 2010ERAINOKOAK | LGS-KO % 230TIK GORAKOAK |
| 2, GEHIENEZ | 90% | 75% | 50% | 25% | 10% | - | - |
| 3 | 90% | 90% | 75% | 50% | 25% | 10% | - |
| 4 | 95% | 90% | 90% | 75% | 50% | 25% | 10% |
| 5 | 95% | 90% | 90% | 90% | 75% | 50% | 25% |
| 6 | 95% | 90% | 90% | 90% | 90% | 75% | 50% |

| | | | | | | | |
|------------------|-----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|
| 7 EDO GEHIAGO | 95% | 90% | 90% | 90% | 90% | 90% | 75% |
|------------------|-----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|

Oharra: guraso bakarreko familia-unitateen kasuan, aurreko taulan aplikatu beharreko hobariak % 10 handituko dira, % 95eko gehieneko mugarekin.

2.- Erreguzko izaera duen hobari hori izateko, agiri bidez justifikatu beharko da argudiatutako zirkunstantzia, familia unitateko kideen kopuruari eta haien errenta mailari dagokienez, zerbitzuaren eskabidearekin batera.

10. Artikulua.-Prezio publikoaren ordainketa egin beharko da:

- Baldin eta zerbitzuen eskaintza edo Jardueren burutzea, udal diru-kutxan zuzenean diru-gordailatzea eginez egiten bada, ordainketa zerbitzua eskaini edo jarduera egin aurretik, eta adierazitako gutxienezko kopuruagatik, egin beharko da.
- Aurretik gordailatzea egitea posible ez denean, zerbitzuaren eskaintzak edo jardueraren burutzeak duen izaera dela eta, ordainketa,, Administrazioak dagokion faktura aurkezten duenean egingo da.
- Zerbitzuen eskaintza edo jardueren burutzea urterokoa izango balitz, behin prezio publikoaren matrikuletan barne sartutakoan, ordainketa urte naturaletan egingo da.

11. Artikulua.- Zerbitzua ez balitz eskainiko edo jardura ez balitz burutuko, eta hori ez egiteko arrazoia ezin lepora balezaio prezio publikoa ordaintzeko obligazioa duenari, ordaindua zukeen zenbatekoa itzuli egin beharko zaio.

12. Artikulua.- Prezio publiko hauengatik zorrak, premiamenduzko prozedura administratibo bidez, exijitu ahal izango dira.

XEDAPEN GEHIGARRIA ADMINISTRAZIOEN ARTEKO ELKARRERAGINGARRITASUNA

1. Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 28. artikuluan ezartzen duenez, dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak ez aurkezteko eskubidea dute interesdunek. Basauriko Udalaren zerbitzu/sail eskudunak elektronikoki kontsultatu edo bildu ahal izango ditu dokumentu horiek, datuen bitartekotza-plataformen edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuen bidez. Arrazoi teknikoak direla eta elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, izapideak egiteko behar diren dokumentuak aurkezteko eskatu ahal izango zaio interesdunari.

2. Zilegi da datu pertsonalen tratamendua egitea, interes publikoaren aldeko eginkizun bat betetzean edo Basauriko Udalari emandako botere publikoak gauzatzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan aurreikusitako baldintzetan. Datuak minimizatzeke printzipioarekin bat etorritik, datu egokiak, beharrezkoak eta ezinbestekoaren neurria mugatuak bakarrik eskatuko dira, datu horiek tratatzeko helburuen arabera (DBEO, 5.1.c artikulua).

AZKEN XEDAPENA

“Ordenantza hau behin betiko onetsi da, eta egin zaizkion aldaketekin batera, 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zen, eta indarrean egongo da, hori aldatu edo indargabetzea erabaki arte”.

(2011ko azaroaren 11a osoko bilkuran Udalbatzak aldatua)
(2012ko azaroaren 19a osoko bilkuran Udalbatzak aldatua)
(2014ko urriaren 30ea osoko bilkuran Udalbatzak aldatua)
(2017ko urriaren 26a osoko bilkuran Udalbatzak aldatua)

(2018ko urriaren 25ea osoko bilkuran Udalbatzak aldatua)
 (2019ko urriaren 30ea osoko bilkuran Udalbatzak aldatua)
 (2020ko urriaren 29a osoko bilkuran Udalbatzak aldatua)
 (2021eko urriaren 28a osoko bilkuran Udalbatzak aldatua)
 (2022ko urriaren 27a osoko bilkuran Udalbatzak aldatua)
 (2023ko otsailaren 26a osoko bilkuran Udalbatzak aldatua)

| I. ERANSKINA | |
|---|-----------------------------|
| ZERBITZU BATZUK | |
| 1.- ZABORRAK BILTZEKO ZERBITZU BEREZIAK | |
| Tona metrikoko | 246,00 € |
| 2.- ZINKEZKO KUTXEN SALMENTA HIL HONDARRAK LEKUALDATZEKO | |
| 2.1.- Kutxa handi bakoitzeko | 52,00 € |
| 2.2.- Kutxa txiki bakoitzeko | 40,00 € |
| 3.- GARAJERAKO SARBIDEA BABESTEKO ESKUDELA JARTZEAGATIK | |
| 3.1 GARAJE-SARRERAKO BARANDEN DERRIGORREZKO MANTENTZE-ZERBITZUA | Unitate bakoitza, 31 €/urte |
| 4.- BALDOSA GRANITIKOAK (BEZa BARNE) | |
| 4.1.- BALDOSA GRANICEM 40 x 40cm | 8,00 € |
| 4.2.- BALDOSA GRANICEM 60 x 40cm | 8,00 € |
| 4.3.- BALDOSA GRANICEM BEHERATUA 40 x 40cm | 8,00 € |
| 4.4.- BALDOSA GRANICEM BEHERATUA 60 x 40cm | 8,00 € |
| 4.5.- BALDOSA GRANICEM TAKO ZIRKULARRAK 40 x 40cm | 8,00 € |
| 4.6.- BALDOSA GRANICEM BASAURIKO ARMARRIA 40 x 40cm | 8,00 € |
| 4.7.-BALDOSA GRANIBLOCK ZURIA 60 x 9,5cm | 12,00 € |
| 4.8.- MACAEL MARMOLEZKO LISTOIA 100 x 10cm | 34,00 € |
| 5.- UDAL BRIGADAK EGINDAKO LANAK, langile eta ordu edo frakzio bakoitzeko | 41,00 € |

| II. ERANSKINA | |
|--|-----|
| INGURUMEN ZERBITZUAK | |
| 1.- Makinek sortutako soinu mailak neurtzea | 221 |
| 2.- Musika ekipamenduek sortutako soinu mailak neurtzea | 221 |
| 3.- Neurri zuzentzaileak ez betetzeagatiko salaketak, makinek edo musika ekipamenduek sortutako soinu mailak 2. aldiz neurtzeagatikoak | 221 |

| III. ERANSKINA | |
|---|-----|
| GIZARTE ZERBITZUAK | |
| 1.- GIZARTE LARRIALDIKO EGOERETARAKO BIZITOKI ZERBITZUAGATIKO BATERAKO ORDAINKETA, HILEKO ZENBATEKOA BIZIKIDETZA UNITATE BAKOITZEKO | 670 |

| | |
|---|---|
| 2.- ETXEBIZITZA, HIGIGARRIAK EDO TRESNAK MANTENTZEAGATIK, ERABILTZAILEAK MANTENTZEN EZ BADITU | ERABILTZAILEARI JASANARAZIKO ZAIO UDALAK EMATEN DITUEN ZERBITZUENGATIKO FAKTURA |
| 3.- ERABILERA ZABAR EDO DESEGOKIAREN ONDORIOZKO KONPONKETA EDO BERRITZE GASTUAK | ERABILTZAILEARI JASANARAZIKO ZAIO UDALAK EMATEN DITUEN ZERBITZUENGATIKO FAKTURA |